

# ‘Enlorqueciendo’ antzezlanaren eskainiko du Banartek Errotan

Berrizen estreinatu zuen Banartek obra, eta asteburuan Abadiñon ariko da



Banarteren seigarren antzerki tailerreko partaideek dihardute obran.

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Berrizko Kultur Etxean estreinatu zuen Banarte Abadiñoko antzerki taldeak *Enlorqueciendo* obra, joan zen egunean. Talde horrek seigarren urtez antolatutako duen antzerki tailerreko partaideek ikasturte amaierarako prestatu duten antzezlanaren da *Enlorqueciendo*. Bi emanaldi izan dituzte aurreikusita Abadiñorako: atzo, Txanporta kultur etxean eskaini zuten, eta domekan, 20:00etatik aurrera, Errotan eskainiko dute.

Federico García Lorca poetaren ‘La casa de Bernarda Alba’ lanean oinarriturikoa da obra

Federico García Lorca poetaren *La casa de Bernarda Alba* antzezlanean oinarrituta prestatu dute *Enlorqueciendo*. Idazle andaluziarraren obraren garrantziari eta esanahiari buruz dihardu Banartek lan honetan, Lorca obra idaztea amaitu zuenetik 78 urte igaro direnean. Lorca antzerkigileari begiratzeko beste modu bat eskainiko dute, sortzaileen berbetan. Sar-do Irisarriren zuzendaritzagaz prestatu dute antzezlanaren.

Bestalde, profesionala ez den antzerkigintzaren Zaragozako Centro Universidad lehiaketan antzezlan onenaren saria jaso berri du Banarte antzerki taldeak asteon. Lehiaketara aurkeztu diren ehun lanen artean epaimahaiak hautatu dituen seien artean dago *Guernica 1913*.

Ez da hori Banarte antzerki taldeak obra horregatik jasotako lehenengo saria. Urte hasieran, Espainiako Antzerki Amateurraren Konfederazioaren sari nagusia jaso zuen. Gernikan, mende hasieran jazotako benetako gertaerak kontatzen ditu antzezlanak.

## GEURE DURANGALDEA

### LIBE MIMENZA

Kazetaria



## Zentzumenak

### Ikusmena

Zenbaki eta ehunekoen zopa zifratu gara haien zatitza. Urte luzez, ilusioz ikasitakoak etxekoentzatat. Formakuntza eta lana uztartuz ezagutu gaituzte lagunak. Baina gazte langabeok, bizirautearen pisua dugu oihartzun. Gai gara, baina gaitza da.

### Entzumena

Aditu ditugu bizi dugun “garaia” izendatzeko hiztegi berria egin duten agintariak. Konposatu duten izurritea konpost bihurtuko nuke. Errefusak, baina, ezin bizirik erditu.

### Usaimena

Esperientziaren kiratsak busitzen zituen lan eskaintzak behinola, mila euro irabaztea pribilegio baino problema zen “garai” haietan. Usainduko balute gazteon lan egiteko, ikasteko, konprometitzeko eta eki-